


## 28 SAN LORENTZO - SAN JUSTO
## SAN JUAN - SAN JUSTO




www.gorbeiaeuskadi.com

**OROZKO**
Plaza Zubiaur
☎ 946 122 695

**MURGIA**
Plaza Bea-Murgia
☎ 945 430 440

EUSKADI BASQUE COUNTRY · araba álava foru aldundia diputación foral · Bizkaia foru aldundia diputación foral · Gorbeia · Gorbeialdeko Kuadrilla Cuadrilla de Gorbeialdea · Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea Asociación de Desarrollo Rural

## 28.1 SAN LORENTZO - SAN JUSTO

Ibilbidea Itinerario

Otzerinmendiko San Lorentzo eta San Justo baselizetara gerturatzen gaituen ibilbidea da, baserriz jositako auzoetatik barrena doana. Gainera, Zeanurin hain garrantzitsuak izan diren errota batzuk ezagutzeko aukera ere badago.

Recorrido que nos acerca a las ermitas de San Lorenzo y San Justo de Otzerinmendi, que discurre por barrios plagados de caseríos. Además, nos da la oportunidad de conocer algunos molinos que han sido de gran importancia en Zeanuri.



| | | |
|---|---|---|
| IRTEERA | Parada Bus geltokia | SALIDA |
| HELMUGA | | LLEGADA |
| LUZERA | 9,2 km | DISTANCIA |
| GEHI.MALDA (+) | 304 m | DESNIVEL (+) ACUMULADO |
| DENBORA | 2h 30’ | TIEMPO ESTIMADO |
| ZAILTASUNA | ertaina media | DIFICULTAD |




Areatzara doan errepidea jarraituz abiatuko dugu ibilbidea, honen ezkerreko aldean dagoen espaloia erabiliz. Biribilgune bat inguratu eta gero, errepidearen azpitik pasatu eta **Olabarriko errota**ra helduko gara. Errota jatorriz burdinola izandakoa da, XIX. mendean errota bihurtu zuten arte. Bidean aurrera eginez, **Zulaibar**rera helduko gara, eta autobus geltokia baino apur bat aurrerago, ezkerreko auzobidetik jarraituko dugu, **Uribe** auzorantz.

Bidean gora goazela eta ur hodi baten azpitik igarotzerakoan, ezkerreko bidetik jarraituko dugu **San Lorentzo**ko baselizaraino. Hau, eliza erromaniko baten gainean eraiki zen XV. mendean eta hegoaldeko elizpean, Erdi Aroko nekropoli bat dauka berau inguratzen duena.

Bisita egin eta gero, San Justora heltzea izango da hurrengo helburua. Horretarako auzobidea jarraituko dugu etxe batzuetara heldu arte. Azkeneko baserriaren eskuman dagoen bidezidorra jarraituz eta asfaltozko auzobidera helduko gara, non eskumatara egingo dugun. Harizti eder batean dagoen **San Justo**ko baselizaren ondoan, ikusi beharreko karobi frantsez bat dago.

Altzuaga auzora heltzeko, aparkalekuaren goiko partean dagoen bidegurutzean ezkerretik doan bidea jarraitu behar dugu, basoko pista batera heltzeko. Behin basotik irteterakoan, **San Juan Bautista** baselizaren parean, asfaltozko bide batera helduko gara berriro. Hurrengo bidegurutzean ezkerretara egingo dugu, eta auzobidea bukatzerakoan, baserrien ondoan dagoen bidezidorra jarraituko dugu **Undurragako urtegi**ra heltzeko.

Ezkerretara egingo dugu orain, aldapa behera, **Errotabarri errota**ren ondotik igarotzeko. Berriro ere baserriekin topo egiterakoan, Arratia erreka gainean dagoen zubia zeharkatu eta **Urraburu plaza**ra helduko gara, abiapuntu izan dugun autobus geltokiaren ondora.



Iniciamos el recorrido siguiendo la carretera que llega a Areatza, utilizando la acera situada a la izquierda de ésta. Tras rodear una rotonda, pasamos por debajo de la carretera y llegamos al **molino de Olabarri**. En su origen, este molino era una ferrería, hasta que en el siglo XIX fue convertida en molino. Avanzando por el camino, llegamos a **Zulaibar** y un poco más adelante de la estación de autobuses, continuamos por el camino vecinal de la izquierda, hacia el barrio de **Uribe**.

Mientras seguimos subiendo, pasaremos por debajo de una tubería de agua, y tras ésta, continuamos por el camino de la izquierda hasta la ermita de **San Lorenzo**. Esta ermita fue construida sobre una iglesia románica en el siglo XV y junto al pórtico sur cuenta con una necrópolis medieval que la rodea.

Tras la visita, el próximo objetivo será llegar a San Justo. Para ello seguimos el camino vecinal hasta llegar a unas casas. Siguiendo el sendero situado a la derecha del último caserío, se accede al camino vecinal de asfalto, donde continuamos por la derecha. No os podéis perder el calero francés situado junto a la ermita de **San Justo**, rodeado por un hermoso robledal.

Cogemos un camino que discurre por la izquierda en el cruce que está en la parte superior del aparcamiento, para así acceder a una pista forestal. Una vez en el bosque, a la altura de la ermita de **San Juan Bautista,** llegamos de nuevo a un camino de asfalto. En el siguiente cruce giramos a la izquierda y al finalizar el camino vecinal, continuamos por el sendero situado junto a los caseríos para llegar al **embalse de Undurraga.**

Giramos ahora a la izquierda, cuesta abajo, para pasar junto al **molino Errotabarri**. Al volver a encontrarnos con los caseríos, cruzamos el puente sobre el arroyo Arratia y llegamos a la **plaza Urraburu**, junto a la parada de autobuses de la que hemos partido.

## 28.2 SAN JUAN - SAN JUSTO

Ibilbidea Itinerario

San Justora heltzeko ibilbide laburragoa da, Altzuaga auzoko San Juan Bautista baseliza bisitatu eta gero gerturatzen dena. San Juston ezagutu beharreko karobia dago, duela gutxiko baserritar bizimoduaren islada paregabea.

Recorrido más corto para llegar a San Justo, que llega al barrio de Altzuaga después de visitar la ermita de San Juan Bautista. El calero que se encuentra en San Justo es un claro ejemplo del reflejo incomparable de la vida rural reciente.



| | | |
|---|---|---|
| IRTEERA | Parada Bus geltokia | SALIDA |
| HELMUGA | | LLEGADA |
| LUZERA | 8 km | DISTANCIA |
| GEHI.MALDA (+) | 297 m | DESNIVEL (+) ACUMULADO |
| DENBORA | 2h 15’ | TIEMPO ESTIMADO |
| ZAILTASUNA | ertaina media | DIFICULTAD |




Udaletxearen ondotik pasatuz, **Urraburu plaza**ra helduko gara eta hau frontoiaren eskumako aldetik zeharkatuz gero, Arratia erreka gurutzatzen duen zubia aurkituko dugu. **Undurragako urtegi**ra joateko auzobidean gaudela, ezkerretik jarraituko dugu ia urtegiaren goiko aldera heldu arte. Aldaparen amaieran, basoan barneratzen diren bi bidezidor aurkituko ditugu eskumako aldean; bigarrena da jarraituko duguna.

Basotik irteterakoan, baserri batzuen ondotik igarotzen den auzobidetik egingo dugu aurrera, eta hortik gutxira dagoen bidegurutzean, eskumarantz egingo dugu. Asfaltozko pista batekin topo egiterakoan ezkerretara begiratuz gero, **San Juan Bautista** baseliza zuhaitzen artean ezkutuan aurkituko dugu. Baseliza XV. mendekoa da eta barruan X. mendeko nekropoli bat dauka.

Ibilbidearekin jarraitzeko, pista jarraitu eta basoan sartuko gara. Pinuditik irteterakoan, **San Justo**ko baselizarekin eta honen ondoan dagoen karobia bisitatzeko aukera izango dugu. Karobia antzinako bizimoduaren elementu garrantzitsu bat da inguruko jendearentzako. Kareharria eta egurra erabilita, larreak ongarritzeko, baserriak zuritzeko edota arraultzak kontserbatzeko erabiltzen zuten bertan lortutako karea.

Herriaren erdigunera bueltatzeko errepidetik jarraituko dugu. Baserri desberdinetara heltzeko desbiderapenak aurkituko ditugu bidean zehar, baina guk, errepide nagusiari egingo diogu kasu zati handi batean, paisaia naturalaz eta kulturalaz gozatuz. Ia behean gaudela, artea erraldoi bat eta ia eraitsita dagoen baserri batera heltzerakoan, eskumako auzobidea jarraituko dugu, errepide zati bat ekiditeko. Hurrengo bidegurutzera heltzerakoan, eskumatara egingo dugu lehen atzean utzi dugun errepidearekin elkartu eta **San Isidro** baseliza parera heltzeko. Hasierako puntua eskumatara dago, hortik metro gutxitara.



Pasando junto al Ayuntamiento llegamos a la **plaza de Urraburu**, donde cruzaremos el frontón por el lado derecho para encontrar el puente que cruza el río Arratia. En el camino vecinal que llega al **embalse de Undurraga**, continuamos por la izquierda hasta llegar casi a la parte alta del embalse. Al final de la cuesta, en la parte de la derecha, encontramos dos senderos que se adentran en el bosque; el segundo es el que seguimos.

Al salir del bosque, continuamos por el camino vecinal que discurre junto a varios caseríos, y en el cruce que hay poco después, giramos hacia la derecha. Al toparnos con una pista de asfalto si miramos a la izquierda, observamos la ermita de San Juan Bautista oculta entre los árboles. La ermita es del siglo XV y alberga una necrópolis del siglo X.

Para continuar con el recorrido, seguimos la pista que entra al bosque. Al salir del pinar, podremos visitar la ermita de **San Justo** y el calero que hay junto a ella. El calero fue un elemento importante del modo de vida antiguo para la gente del lugar. Con piedra caliza y madera, obtenían la cal que se utilizaba para fertilizar pastos, blanquear caseríos o conservar huevos.

Para volver al centro del pueblo continuamos por la carretera. Encontramos varias desviaciones a lo largo del camino para llegar a los diferentes caseríos, pero en nuestro caso, seguiremos por la carretera principal, disfrutando del paisaje natural y cultural que nos ofrece el entorno. Ya casi abajo, al encontrarnos con una encina gigantesca y un caserío casi derruido, seguimos el camino vecinal de la derecha para evitar un tramo de carretera. Al llegar al siguiente cruce giramos a la derecha para juntarnos con la carretera que hemos dejado atrás y llegar a la altura de la ermita de **San Isidro**. El punto de inicio está a la derecha, a pocos metros de ahí.




track-ak deskargatu

descárgate los tracks

Ibilbide hau egurrezko gezi eta posteekin seinaleztatuta dago. Ibilaldia segurtasunez egin ahal izateko, deskargatu track-a zure GPS edo mugikorrean.

Este recorrido se encuentra señalizado con postes y flechas de madera. Para poder realizar la ruta con seguridad, descarga el track en tu GPS o smartphone.

## GOGORATU! ¡RECUERDA!

**Ingurunea, flora eta fauna errespetatu**. Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.

**Ingurunea garbi mantendu**. Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.

**Seinaleztapena errespetatu**. Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.

**Arreta artzai txakurrekin**, utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatxuzko keinuak ekidin.

**Informazioa eskatzeko,** Orozkoko eta Murgiako turismo-bulegoetara jo dezakezu, edo gure webgunean kontsultatu: *www.gorbeiaeuskadi.com*

**Respeta el entorno, la flora y la fauna**. Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.

**Mantén limpio el entorno.** No abandones basura; deposítala en los contenedores o llévatela.

**Respeta la señalización**. Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.

**Atención a los perros pastores**, no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretar como un ataque.

**Para solicitar información** puedes acudir a nuestras oficinas de turismo ubicadas en Orozko y en Murgia o consultando en nuestra web: *www.gorbeiaeuskadi.com*

ZEANURI

Gorbeia

28 SAN LORENTZO - SAN JUSTO
SAN JUAN - SAN JUSTO

GORBEIA
IBILBIDEAK
ITINERARIOS